

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: BEASAINGO UDALERRIKO SALTOKIETAKO ETA JARDUERETAKO ERROTULUETAN, IRUDI KORPORATIBOETAN ETA WEB ORRIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO OINARRIAK

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua da Beasaingo udalerriko errotuluetan, irudi korporatiboan eta saltokien eta jardueren web orrian (zerbitzu eta ostalaritza sektorea) euskara erabiltzen dutenei 2024rako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea. Hori guztia aipatutako jardueren publizitatea egitean euskararen erabilera sustatzeko.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:
- Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.

Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldez aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea

- b) Errotuluaren eta irudi korporatiboaren (besteak beste, eskuorriak, zigiluak, bisita txartelak, poltsak) kasuetan:
- Testua euskaraz bakarrik egotea.
 - Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.

c) Web-guneen kasuan:

- Beasainen helbide fiskala.
- Web orriak euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza/hizkuntza batean idatzita egon beharko du. Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen direnean, euskarazko testuaren dimentsioak gainerako hizkuntzen antzekoa izan beharko du.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Errotuluak:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 240 euro.

2. Irudi korporatiboa:

Kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 180 euro.

3.Web-orriak:

- a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %60 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 470 euro.
- b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 380 euro.

4. Eskerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak argitaratzea eta eskerak aurkezteko epea:

Oinarriak, Udalbatzan onartu ondoren, BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2024-12-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.